zerberri?
LEZOKO UDAL ALDIZKARIA *REVISTA MUNICIPAL DE LEZO*
Lezoko Unibertsitateko Udala
LEZON
01'
MARTXOA **2017** *MARZO*

# Aisialdirako gune estali berria Lezoko Herri Eskolako jolastokian

## *Un nuevo espacio de ocio para los días de lluvia*



# GUTUNA

## Herritarren ongizatea hobetzearen alde lanean



Jesus Mari Martiarena
Lezoko alkatea

Aldaketa, erabaki eta proiektu orok izan behar dute helburu herritarren ongizatea hobetzea. Guretzat lehentasunezkoa da herritarren eskari, nahi eta beharrei erantzutea eta premisa horretatik egiten dugu lan egunero.

Gauzak horrela, herritarren eskariari erantzunez eta egungo sistema hobetzeko helburuarekin hondakin bilketa sistema aldatzea erabaki dugu, lezoarrei gaikako bilketan erraztasunak eskaintzeko. Izan ere, sistema berriarekin herritarrentzat erosoagoa eta errazagoa izango da gaikako bilketa egitea eta ziur gaude horrek bilketa emaitzak hobetzen lagunduko digula.

Adin tarte ezberdinetako pertsonen beharrak asebetetzeko helburu beraren baitan, beste zenbait proiektu garatu eta ekimen ezberdinak jarri ditugu martxan, hala nola, energia eraginkortasuna hobetzeko LED argiak jarri ditugu, herriko haurren jolastoki guztiak berritu eta egokitu ditugu eta hortxe dugu, baita ere, Herri Eskolako jolastokia estaltzeko proiektua, udan gauzatuko dena eta herritarrei aisialdirako aukera berriak eskainiko dizkiena.

Etorkizunerako aukera ezberdinak gaurtik lantzen joatea garrantzitsua da oso guretzat, horregatik, pertsonak erdigunean ezarriz, momentuko beharrei erantzutea lehenesten dugu etorkizunaz ahaztu gabe, sor daitezkeen behar berriei erantzuteko gaitasuna izan dezagun, gure herriaren garapena bermatzeko eta herritarrei aukera berriak eskaini ahal izateko.

## *Trabajando para mejorar el bienestar de la ciudadanía*

Todo cambio, decisión o proyecto debe tener como principal objetivo mejorar el bienestar de la ciudadanía. Para nosotros es prioritario responder a las peticiones, necesidades y deseos de las y los ciudadanos, y por ello, trabajamos bajo esa premisa cada día.

Es por ello que en respuesta a la voluntad de la mayoría y con el objetivo de mejorar el sistema actual, hemos decidido cambiar el sistema de recogida de residuos para que la labor de reciclaje resulte más cómodo y fácil a las y los lezotarras. Estamos seguros de que el nuevo sistema permitirá mejorar los datos de recogida selectiva por ser un sistema que se ajusta mejor a las necesidades y costumbres de la ciudadanía.

Por otro lado, persiguiendo el mismo objetivo de satisfacer y responder a las necesidades de las personas, hemos desarrollado otros proyectos y hemos puesto en marcha diferentes iniciativas. Por ejemplo, hemos colocado luces LED para mejorar la eficiencia energética, hemos renovado y mejorado todos los parques infantiles y hemos elaborado también el proyecto de la cubierta del patio de la Herri Eskola, que se llevará a cabo en verano y que nos permitirá ofrecer a toda la población un nuevo espacio de ocio.

Trabajar desde hoy los proyectos del futuro es de vital importancia para nosotros, sólo así podremos ofrecer nuevas oportunidades mañana. Las personas son lo más importante para nosotros, por ello, responder a sus necesidades actuales es nuestra prioridad, sin olvidarnos del futuro para que podamos garantizar el desarrollo de nuestro municipio, podamos dar respuesta a las necesidades que puedan surgir el día de mañana y podamos ofrecer nuevas oportunidades y proyectos al conjunto de la ciudadanía.

## Herriko haur jolastoki guztiak berritu eta hobetu dira
*Todos los parques infantiles de Lezo han sido renovados*



Sagardiandia



Lopene



Zubitxo

## EDUKIONTZI SISTEMA BERRIAREN EZARPENA, GERO ETA GERTUAGO

# Gai bakoitza bere edukiontzian

# Cada fracción en su contenedor




Lezoko Udalak SanMarko Mankomunitatearekin sinatutako lankidetza hitzarmenari esker laster ezarriko da hondakinak biltzeko sistema berria udalerri osoan.

Dena den, froga gisa, edukiontzi bidezko sistema martxan jarri da Altamira auzoan. Beraz, dagoeneko, bertako bizilagunek hondakinen gaikako sailkapena edukiontzien bitartez egiten dute. Egunero atera ditzakete hondakinak edukiontzietara, edukiontzi marroia zabaltzeko giltza erabili behar dute eta hondakinak poltsa konpostagarrietan atera behar dituzte. Poltsa horiek udaletxean jaso daitezke.

## Helburu nagusia herritarrei erraztasunak ematea gaikako bilketa tasak hobetzeko

Sistema aldaketak helburu du herritarren eskaerei erantzunaz, egungo sistema hobetzea, dagoeneko gaikako bilketara ohituak dauden herritarrei erraztasunak eskaintzeko. Izan ere, lezoarrek sistema berriarekin hondakinak egunero atera ahal izango dituzte, beraz, hondakinak gaika sailkatzea eta ateratzea erosoagoa izango da herritarrentzat.

"Sistema berriarekin birziklatzea errazagoa izango da. Hondakinak ondo sailkatzea guztion ardura da"

Gaikako bilketa tasak hobetzea da jomuga nagusia, horregatik, hondakin bilketa sistema herritarren beharretara eta ohituretara egokitzeaz gain, Udalak informazio eta sentiberatze kanpainak ere burutuko ditu, Altamiran auzoan berriki egin den moduan.

*"Con el nuevo sistema reciclar será más fácil. Es responsabilidad de todas y todos separar los residuos adecuadamente"*

## *Un ahorro anual de 268.000 euros*

*Ya queda menos para que el nuevo sistema de recogida mediante contenedores sea implantado en todo el municipio. El cambio tiene como principal objetivo facilitar la labor de reciclaje a la población ya acostumbrada a separar debidamente los residuos para lograr mejorar las tasas de recogida selectiva.*

*Con el nuevo sistema los habitantes de Lezo podrán depositar los residuos en su correspondiente contenedor diariamente; por tanto, el sistema mediante contenedores resultará más cómodo y se adaptará mejor a las necesidades y a las costumbres de la ciudadanía. Además, es un sistema económicamente más sostenible y permitirá ahorrar anualmente, 268.500 euros que el Ayuntamiento podrá invertir en otros proyectos e iniciativas que redunden en beneficio de todas y todos.*

## NEGUA ERE, KULTUR EKINTZEZ JOSITA




Lezoko Udalak, kulturaren aldeko apustua berretsiz, kultur egitarau anitza antolatu du baita negu garairako ere.  Horien artean nabarmenenak Koadernoa Zuri edo Barro Rojo antzezlanak, Jabier Muguruza eta The Lord taldearen kontzertuak edota Ganbaran eta Kolorez Kolore haur jarduerak. Irailean aurreratu modura, aurrerantzean hiru hilean behin aurkeztuko dira kultur egitarau bateratuak, Kultur Sailaren, Liburutegiaren, eta Musika Eskolaren eskutik.

*Con el objeto de seguir impulsando las actividades culturales en el municipio el Ayuntamiento de Lezo ha vuelto a organizar una agenda cultural repleta de actividades dirigidas a todos los públicos, especialmente, a las niñas y los niños. Las obras de teatro Koaderno Zuri o Barro Rojo, los conciertos de Jabier Muguruza o The Lord o las actividades infantiles Ganbaran y Kolorez Kolore han sido las más destacadas. Como ya se adelantó en septiembre, se presentará trimestralmente la programación conjunta que se realiza desde el departamento de Kultura, Biblioteca y Musika Eskola.*

## GERO ETA PARTE HARTZAILE GEHIAGO TIPI-TOPA IRTEERETAN

Aurreko edizioan oso harrera ona izan zuen egitasmoak eta horri esker, gero eta adineko pertsona gehiagok parte hartzen du Tipi-topa egitasmoan. Irteera horiei esker, lezoar askok, lagun artean, beren osasun fisiko eta psikologikoa zaintzen dute.

Las salidas Tipi-topa cuentan cada vez con más participantes que cuidan de su salud física y psíquica gracias a los recorridos que realizan todos los jueves por la mañana. Para ello cuentan con la ayuda de grupos y personas voluntarias que hacen posible esta iniciativa.

## *ALTAMIRA CUENTA YA CON NUEVO SISTEMA PARA LA RECOGIDA*

*Tras la firma del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Lezo y la Mancomunidad de SanMarko, el Ayuntamiento puso en marcha una prueba piloto en el barrio de Altamira, antes de colocar los nuevos contenedores en todo el municipio. Así las cosas, este barrio ya cuenta con el nuevo sistema para la recogida que permite depositar los residuos diariamente en su correspondiente contenedor.*

*Con el objetivo de mejorar los datos de recogida e incentivar a los y las vecinas del barrio, ya acostumbrados a la recogida selectiva, a seguir clasificando adecuadamente los residuos el Ayuntamiento llevó a cabo una campaña de información.*

Edukiontzi bidezko sistema udalerri osoan ezarri aurretik, froga gisa, hondakinak biltzeko sistema berria jarri da martxan Altamira auzoan. Gauzak horrela, dagoeneko bizilagunek egunero atera ditzakete zaborrak edukiontzietara. Era berean, edukiontzien erabilera egokia sustatzeko eta gaikako bilketara ohituak dauden herritarrek hondakinak gaika ondo sailkatzen jarrai dezaten indartzeko informazio kanpaina ere gauzatu du Udalak.




## ARGITERIA PUBLIKOAN HOBEKUNTZAK

Argiteria publikoan hobekuntzak gauzatu dira. Dagoeneko, LED argi berriak ezarri dira herriko zenbait tokitan, eta faseka, egungo argiak LED argi berriekin ordeztuko dira argiteria publikoaren

egoera eta energia eraginkortasuna hobetzeko.

*Con el objetivo de reducir el consumo de energía y mejorar la eficiencia energética en el alumbrado público, se irán cambiando por fases las actuales luminarias por luces LED.*

## SANEAMENDU SAREAN OBRAK ERREKAREN UR KALITATEA HOBETZEKO



2016an herriko ur kalitate ona bermatu eta arazoak non egin zitezkeen identifikatzeko ikerketa proiektu bat eraman zen aurrera. Ikerketa proiektuaren emaitzak kontuan izanik, 2 isurketa puntu konpondu dira ur zikinak ez daitezen errekara joan. Udalak ur kalitate ona bermatzen jarraituko du eta isurketarik atzemanez gero, neurriak hartuko dira. Horregatik, aparrik edota kutsadurarik somatzen bada abisua emateko eskaera egin dute Udaletik.

*El Ayuntamiento ha llevado a cabo varias obras en la red de saneamiento para evitar que las aguas residuales se viertan directamente al río y así mejorar y garantizar la buena calidad del agua.*

## *NUEVOS PANELES INFORMATIVOS*

*El Ayuntamiento ha colocado a lo largo y ancho del municipio 18 nuevos paneles informativos donde poder colocar anuncios y carteles con el objetivo de ofrecer a la ciudadanía unos soportes adecuados para ello y así poder mantener las calles y las paredes despejadas.*

Udalak 18 adierazpen panel ezarri ditu herritarrek, taldeek eta iragarleek beren kartel eta iragarkiak jar ditzaten. Helburu nagusia da herritarrei euskarri aproposak eskaintzea eta kaleak eta paretak txukun eta garbi mantentzea.

## MARINAZKANE IPUIN BERRIA




Trapujaleren 30. urteurrena ospatzeko inauteri bereziak izan ditugu. Hainbat ekintza egin dira inauterietako pertsonaia protagonistaren harira; hala nola, antzerkiak, argazki lehiaketa, kalejirak, etab. "Marinazkane eta Zirikuak" ipuin berriaren aurkezpena izan da inauterietako berezitasun nagusia.

*Los carnavales de este año han sido especiales por el 30 aniversario de su protagonista. Se han organizado diversas actividades para celebrar el aniversario de Trapujale y se ha creado un nuevo libro sobre los personajes más malvados del carnaval "Marinazkane eta Zirikuak".*

## *AMPLIO PROGRAMA PARA CELEBRAR EL DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES*




*Con el motivo de la celebración del Día Internacional de las Mujeres, la Asociación de Mujeres Gaxuxa con la ayuda del Ayuntamiento ha organizado varias actividades con el objetivo de reivindicar una sociedad más igualitaria.*

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko asmoz, Gaxuxa Emakumeen elkarteak Udalaren laguntzarekin hainbat ekintza antolatu ditu Lezon.



# HERRI ESKOLAKO JOLASTOKIA ESTALTZEKO PROIEKTUA



## ESKOLA ORDUETATIK KANPO ERE IREKITA

Udalak lehentasuna eman dio herri eskolako estalpearen proiektuari, izan ere, Karlos Saldise plazaz gain, eremu gutxi daude herrian estalita haur, gazte, zein helduek beren aisiaz goza dezaten.

Beraz, herritarren behar eta eskariei erantzuteko eta udalerriko azpiegiturak hobetzeko helburuarekin, Herri Eskolako jolastokia estaltzeko proiektuaren idazketa eskatu zuen Udalak eta dagoeneko jaso da aipatu proiektua.

## Helburu nagusiak

Proiektuak helburu bikoitza du, haurrei eta herritarrei aisialdi eremu estali berria eskaintzea, eguraldi txarra egiten duenean, haurrek, bereziki, non jolastu izan dezaten. Eta bestetik, eskola ordutegitik kanpo jolastokia zabalik egotea, larunbat, igande eta baita jai egunetan ere  iluntzeko 21:30 arte.

Horretarako, baina, beharrezkoa izango da ikastetxearen eraikina eta jolastokia isolatzea, eskola orduetatik kanpo, herritarrek eta kultur zein kirol taldeek instalazio horiek erabiltzeko aukera izan dezaten.



## Proiektuaren zehaztasunak

Egitura sinple eta arin batekin estaliko da jolastokia eta material gardenak erabiliko dira argi naturala eremu estalian sar dadin.

Egungo sarrera eta itxiturak mantenduko dira, baina itxitura berri bat egingo da ekialdean, esan bezala, eskola jolastokitik banatzeko eta eskola orduetatik kanpo herritarrek jolastokia erabiltzeko.

## Obrak, udaran

Jolastokia estaltzeko lanak udan gauzatuko dira haur eta irakasleei eragozpenik ez eragiteko. Beraz, ikasturtea amaitzean hasiko dira lanak. Horretarako, aurretik, Udalak obrak esleitu beharko ditu. Guztira lanek 450.933,48 euroko kostua izango dute (BEZ barne).



# PROYECTO DE CUBRICIÓN DEL PATIO DE LA HERRI ESKOLA

## Un nuevo espacio de ocio para los días de lluvia

***El Ayuntamiento de Lezo, en aras de dar respuesta a las peticiones y necesidades de la ciudadanía, ha dado prioridad a la obra para cubrir el patio de la Herri Eskola y así ofrecer a los y las niñas del municipio un nuevo espacio de ocio cubierto que pueda ser utilizado los días de lluvia, un espacio que además podrá ser utilizado por cualquier habitante de Lezo fuera del horario escolar, incluidos sábados, domingos y festivos hasta las 21:30h.***

***Para ello, se aislará el patio del resto de la escuela para permitir su apertura fuera del horario escolar y para que la ciudadanía, así como los grupos culturales y deportivos de Lezo, puedan hacer uso de dicha instalación.***

***Las obras para la construcción de la nueva cubierta del patio de la Herri Eskola se llevarán a cabo en verano para no causar ninguna molestia a los y las estudiantes y docentes del centro durante el curso escolar.***

Kudeatzeko ardura dugunoi dagokigu hitzetik ekintzetara pasatzea, konpromisoak hartzea eta horiek aurrera eramatea.

Martxoa hilabete berezia da Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen delako. Aurrera pausoak eman baditugu ere, oraindik bereizkeria kasuak ematen dira esparru ezberdinetan: lan-munduan, etxeko lanen banaketan, familiaren zaintzan… horregatik, aldarrikatzen dugu ozen martxoaren 8an emakume eta gizonen arteko berdintasuna, berdintasunean oinarritutako gizarte parekide bat eraiki nahi dugulako.

Gauzak ez dira egun batetik bestera aldatzen eta gure gizarteak behar duen eraldaketa sakona eman dadin, gizarte osoaren inplikazio eta konpromisoa funtsezkoa da norbanakotik hasita erakundeetaraino, horrela lortuko baitugu erabateko gizarte parekidea eraikitzea.

*Al hilo de la celebración del día internacional de la mujer, cabe destacar, lo mucho que hemos avanzado en este ámbito en los últimos años, pero aún queda un largo camino por recorrer. Debemos dar pasos firmes hacia la paridad y la igualdad. Y es que, aun hoy, la igualdad entre hombres y mujeres no es una realidad y se siguen dando situaciones de micromachismos y desigualdades en el ámbito laboral o en el cuidado familiar. Es necesario poner de relieve todos estos aspectos para que tomemos conciencia sobre ello y reivindiquemos, tanto hombres como mujeres, una sociedad más justa y más igualitaria.*

Hemendik aurrera 2017ko martxoaren 19a gure memorian gorderik geratuko zaigun data izango da. Oroitzapen gozoko eguna. Egun historikoa. Baina martxoaren 19a garrantzitsua izanik ere, horra iritsi arteko bidean jarri nahi dugu arreta.

Egindako bideari eman nahi diogu garrantzia. Demokrazian sakontzeko ariketa ederra. Eta ezer baino lehen, zorionak eta txalorik beroenak bide horretan ibili zareten guztioi.

"Gauza bat erreala izateko lehenik irudikatu egin behar da eta behin irudikatzen duzula gerturatzen ari gara eta ilusioa baldin badugu, pausuak ematen hasten gara". Hori zioen Gure Esku Dago taldeak banaturiko idatzi batean. Ametsak, ilusioa eta elkarren arteko lana.

Hauek izan dira bide honen zorua osatzen zuten ezaugarriak. Belaunaldi diferentetako herritarrak batera eztabaidatzen, arlo desberdineko herritarrak elkarrekin lanean, pentsakera ezberdineko herritarrak zer izan nahi duten elkarrekin erabakitzen.

Etorkizunak nola izan behar duen irudikatu duzue. Eredugarri izan zarete. Hau hasera besterik ez da izan eta ziur martxoak 19 gehiago etorriko direla. Zorionak eta jarrai dezagun utopiak elikatzen. Zertarako? Bidea eraikitzeko, mugimenduan hasteko eta aurrera egiteko.


Ainara Beldarrain



Jon Esnaola


Amaia Rebollo

Trapujaleren 30.urteurrenaren harira Udalak antolatutako argazki lehiaketaren irabazleak.

Zorionak Marinazkane eta Zirikuen ipuina eskuratu duzuenoi!


Gorka Izulain



Mari Jose Nicolas



Jesica López


Nagore Perez

# TRAPUJALEREN 30.URTEURRENA OSPATUZ

**Trapujale gure herriko inauterien protagonista dugu. Erdi betizu, erdi zaldia den izaki honek ematen die inauteriei hasiera. Jaizkibeletik jaisten da urtero Lezora inauteri jaiak ekartzeko.**

**Magiaz beteriko jaitsiera izaten da eta bidelagun izaten ditu guraso, haur, alde zaharreko joaldunak eta herriko musikariak. Harrera egin ostean, jaiek irauten duten sei egunak igarotzen ditu udaletxeko balkoian herritarrak zaintzen eta azken egunean epaiketa egiten zaio.**

## Baina baldakizu zein den Trapujaleren jatorri eta kondaira?




## TRAPUJALE PERTSONAIA, ASPALDIKO GOITIZENETIK SORTUA

**Duela 30 urte Trapujale pertsonaia garatu eta inauteri bilakatu zuen Ekaitz aisialdi taldeak Lezon inauteriei euskaldunak ospatzeko asmoz.**

Hainbat eragile bildu eta zer egin zitekeen hausnartu zuten. Izena, baina, aspaldiko goitizen batetik dator. Kondairak dio Lezok gosete urteak bizi izan zituela. Lezoarrak hain ziren gose, jateagatik, nonbait, trapuak ere jaten omen zituztela. Hori dela eta, inguruko herrietako biztanleek, Trapujale deitzen zieten lezoarrei.







Istorio hori oinarri hartuta garatu zen pertsonaia inauterietako protagonista bihurtuz eta 1990. urtean Mikel Susperregi eta Lander Zurutuzak Trapujale herriko inauterietako pertsonaiari buruzko komikia sortu zuten.

Trapujale pertsonaia, beraz, lezoarrei deitzen zitzaien aspaldiko goitizenetik sortua da. Inauterietako istorioa, ordea, komikiko Marinazkane, Ziriku eta Trapujale pertsonaiek osatzen dute.

Marinazkane





Zirikuak

"Aguazilla"





Epailea

Aurten, Marinazkane eta Zirikuei buruzko ipuin berria sortu da Trapujale pertsonaiaren 30. urteurrena ospatzeko. Ipuin berri honen bitartez Trapujale inauterietako pertsonaia maltzurrenaren eta haren zazpi zirikuen misterioak argitzen dira.




## Unos carnavales propios

*La leyenda del Trapujale cuenta la historia de Marinazkane, una bruja que tiene unos Zirikus que roban ovejas en Jaizkibel, y que hacen que culpen de ello a Trapujale. A Trapujale, acusado de robarlas, se le hace un juicio público el martes de carnaval. Las y los ciudadanos lo consideran culpable y por ello, le cortan la cabeza y lo queman en la hoguera. Pero su espíritu vuelve para perdonar a las y los lezotarras.*

*Por eso Trapujale regresa a Lezo cada año para anunciar la llegada de las fiestas y permanece los seis días festivos en el balcón del Ayuntamiento cuidando de la población, hasta que llega el día de su juicio.*

## Curiosa la historia, curioso el origen del nombre

*Hace mucho mucho tiempo las y los lezotarras pasaron una terrible hambruna y se dice que se alimentaban de lo que podían, incluso de trapos, por eso, los habitantes de los pueblos de alrededor llamaban a los lezotarras Trapujales.*

*Haciendo humor del mote y con el objetivo de impulsar unos carnavales propios se creó toda una historia entorno a este personaje convirtiéndolo en el protagonista indiscutible del carnaval de Lezo.*

# LEZOINU 17 programa

## MARTXOA *MARZO*

| | |
|---|---|
| 24 | 19:00etan ABESBATZEN KONTZERTUA". Entzun eta Sutargi abesbatzak |
| 25 | 18:00etan MUSIKA BANDEN TOPAKETA Tomas Garbizu M.E (Lezo), Errenteria Musikal (Errenteria), Loatzo M.E (Tolosaldea) |
| 26 | 19:00etan BLUESS KONTZERTUA The Romanticos |
| 30 | 18:00etan TAILER DINAMIKOA T.G.L.U.M.E.ko irakasle eta ikasleak |
| 31 | 19:00etan GOSPEL KONTZERTUA The Lord Taldea |

## APIRILA *ABRIL*

| | |
|---|---|
| 1 | 12:30etan TALDE INSTRUMENTALA MEB taldea |
| 2 | 19:00etan FOLK-JAZZ KONTZERTUA Trad/Fusion Band12:00etan ERROMERIA Txalapartariak, txistulariak, trikitilariak eta dantzariak |
| 3 | 11:00etan KONTZERTU PEDAGOGIKOA T.U.L.U.M.E.ko irakasle eta ikasleak<br>18:30etan eta 19:30etan INFORMATIKA MUSIKALA Josu Sarasa |
| 5 | 18:00etan MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUA T.G.L.U.M.E.ko Ikasleak |
| 6 | 18:00etan MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUA T.G.L.U.M.E.ko Ikasleak |
| 7 | 17:00etan eta 18:00etan MUSIKARIEKIN JOLASTEN Itziar Izagirre<br>18:00etan ORKESTRA TAILERRA T.G.L.U.M.E.ko Hari Orkestra<br>19:30etan AKORDEOI KONTZERTUA Lauhaizeta Akordeoi Taldea |
| 8 | 12:30etan KANTUJIRA |

## MAIATZA *MAYO*

| | |
|---|---|
| 6 | 11:00etan MUSIKOTERAPIA Itziar Izaguirre |

# udaberri KULTURALA

## APIRILA *ABRIL*

| | |
|---|---|
| 26 | "Zu", Anjel Lertxundi (Literatur solasaldia). Dinamizatzailea: Ane Mayoz. |
| 28 | Zirkun Zirko (Haur emanaldia). Bidai bizitzen. |
| 29 | Soinu Zahar Txapelketa (Dantza). Murixka dantza taldea. |
| 30 | Atte hil aurretik (Antzerkia). Beheko Larraine. |

## MAIATZA *MAYO*

| | |
|---|---|
| 7 | Oskarbi (Musika) 50.urteurrena. |
| 14 | Ondoko hilobiko tipoa (Antzerkia). Txalo Antzerkia. |
| 21 | Sarean kateatuak. (Atzerkia). Nomofobikoak. |
| 23 | "Manual para mujeres de la limpieza", Lucia Berlin (Literatur solasaldia). Dinamizatzailea: Javier Mina. |
| 26 | Ilusioaren indarra (Haur emanaldia). Hodei Magoa. |
| 27-28 | Orratx Antzerki taldearen antzezlana. |

## EKAINA *JUNIO*

| | |
|---|---|
| 2-4 | Mendekoste jaiak |
| 7-16 | Musika Eskolako kurtso amaierako kontzertuak |
| 16 | Murixka dantza taldearen kurtso amaierako ekitaldia. (Kiroldegian) |
| 23 | San Juan bezperako suak eta dantzak |

@LezokoUdala @LezoUdala

Gure aplikazioarekin Lezoko informazio guztia zure esku!

Descargate la app para estar al día

Download on the App Store

Google play